B / B

KRISIALDIA ABAGUNE EGOKIA IZAN LITEKE



La psicología nos dice que las crisis personales no son algo malo en sí, sino una oportunidad para aprender y hacernos fuertes. ¿Se podrá trasladar ese esquema a la crisis económica mundial? La recesión demuestra el fracaso del capitalismo salvaje y anima a buscar un modelo socioeconómico justo y sostenible. Frena el consumismo exacerbado, el despilfarro y la tentación de basar la autoestima en los bienes materiales. Cuando el bolsillo se vacía, el cerebro se llena de ideas innovadoras. En vez de esperar a que pase la tormenta, ¿por qué no tomar nota de los errores pasados y centrarnos en las oportunidades de cambio que abre la crisis?

June Fernández

Langabeziak, pobreziak, enplegukolokotasunak eta depresioak izan duten igoera ikusita, zaila dirudi eguraldi txarrari aurpegi ona jartzera gonbidatzen duen atsotitzari kasu egitea. Biztanleariaren gehiengoak ekaitza noiz pasatuko den zain dago, krisialdia amesgaizto hutsa izango balitz bezala, laster dena "normaltasunera", hau da, orain arteko sistema zentzugabera bueltatuko delakoan. Harri berberarekin behin eta berriro topo egin nahi ez badugu, krisialdiak eragin dituen onurak aprobetxatu edo gutxienez irakatsitakoa aintzat hartu beharra daukagu.

Poluzioaren beherakada izan daiteke krisialdiaren onurarik argiena. Espainiar Estatuan, kotxeen matrikulazioak % 50 behera egin du. Euskal Autonomi Erkidegoko hiru aireportuek iragan urtearekin alderatuta 160.000 bidaiari galdu dituzte 2009ko lehenengo hiruhilabetean. *Expovacaciones* turismo azokan tokiko turismoaren joera indartuz doala argi geratu da. Hegaldi merkeen bidez mundua zeharkatzearen moda gainditu eta etxetik gertuko lekuak deskubritzera deitu du azokak. Kontsumitzea eginbehar abertzalea balitz bezala aurkezten dute politikariek, baina euren ustez ekonomiarentzat mehatxu bat dena ingurugiroarentzat albiste ona da ordea.

Beste ondorio baikor bat ekonomiaren dibertsifikazioa izan da, ikerkuntza eta berrikuntzaren alde apustua eginez. Eraikuntza gehiegi sustatzeak poluzioa handitzeaz gain krisialdia larriagotu du Espainiaren kasuan. Patxi Lopez lehendakari berriak berrikuntzari zuzendutako inbertsioak handituko dituela adierazi zuen kargua zinpetu eta berehala. Bestalde, krisialdiarekin etengabeko prestakuntzaren eskaera %40 hazi da.

Aldaketa horiek guztiek gazteen balioetan eragina izango dutela uste dute psikologian adi-

tuek. Egoera ekonomiko larriaz ohartzen joan ahala, markako arropa janzteak pertsona hobeak bihurtzen ez dituela edo gurasoen dirua euren apetak asetzeko ez dela ulertuko dute. Enpresak eta erakundeak sormena, ahalegina, prestakuntza eta berrikuntzarako nahia goraipatzen ari dira inoiz baino gehiago. Alabaina, diru arazoak bideratzerakoan balore horiek mantentzea izango da erronka nagusia.

Krisialdiaren eraginez, kontsumoaren inguruan ekimen berriak agertzen ari dira. Adibidez, nekazariei bitartekaririk gabe produktuak erosten dieten kontsumo taldeak geroz eta ezagunagoak dira. Kontsumo eredu horren bitartez, tokiko nekazaritza eta ekoizpen ekologikoa sustatzen da, nekazariek soldata duinagoa jasotzen dute (dendetan saltzen diren produktuen prezioaren %30a baino ez dute jasotzen) eta kontsumitzaileek euren elikadurarekiko jarrera aktibo eta arduratsuagoa garatzen dute. EHNE sindikatuak *Nekasarea* delako sarea abian jarriko du aurten formula hori hedatzeko eta gardentasunez kudeatzeko.

Halaber, krisialdiaren beste ondorio baikor bat giza eragileen antolakuntzaren indartzea izan da. Esaterako, Euskal Herriko sindikatu eta hainbat giza erakunde (ekologistak, feministak, ezkertiarrak, bakezaleak...) *Herria Abian* plataformaren inguruan bildu dira gizarte eredu berri baten alde egiteko. Beren manifestuan, kapitalismoa babesten dutenen aurrean, eredu sozial eta ekonomiko alternatibo baten alde mobilizatuko direla jakinarazten dute, hiru ardatz kontuan hartuta: lanaren eta aberastasunaren bidezko banaketa, ekonomiaren demokratizazioa eta ekosistemaren garapen eredu demokratikoa.

Manifestuak emakumeek pairatzen duten jazarpen sexuala, ekonomikoa eta soziala areagotu dela adierazten du. Hala ere, krisialdi egoeran berdintasunak garapena bultzatu egiten duela gogoratu beharra dago. Krisiak jota dagoen herrialde batek bere biztanleriaren erdiaren ekarpenei ezin diela bizkarra eman esan behar da inoiz baino ozenago. "Krisialdia bestelako ekoizpen eta kontsumo moduak ezartzeko, zaintza egiturak eta harremanak berrantolatzeko eta emakume eta gizonen artean ordaindutako eta ordaindu gabeko lanaren bidezko banaketa egiteko abagunea izan daiteke". Horixe izan zen apirilean Jaenen ospatutako Ekonomia Feministaren hirugarren kongresuaren ondorioetako bat. Horretarako, ikerketetan, ekonomi eta zerga politikan eta krisaldiaren aurkako edozein neurrietan ikuspegi feminista barneratzea eskatzen dute.

Algunas ideas anticrisis:

***• Cultura:** Frente a los grandes teatros bilbaínos en los que la entrada cuesta hasta 70 euros, salas más modestas como Bilborock o La Fundición ofrecen obras de teatro y danza contemporánea a precios asequibles. Las obras de teatro comerciales suelen recalar en teatros de pequeñas ciudades, como el de Basauri, con precios más reducidos. En el Teatro Arriaga descuentan el 50% a quienes compran la entrada menos de una hora antes de la función. Ir al cine o al teatro el día del espectador es otra clave.*

***• Transporte:** Una opción sana y gratuita para moverse por Bilbao es solicitar el uso de las bicicletas municipales. El abono Creditrans permite viajar en la mayor parte de transportes públicos por un 40% menos que con el billete ocasional.*

***• De compras:** La crisis ha multiplicado los mercadillos de oportunidades, las tiendas outlet y las campañas de ofertas animadas por los ayuntamientos. Otra opción son las tiendas de segunda mano, como Emaus para la ropa, y Cash Converters para hacerse con equipamiento electrónico y electrodoméstico. Un clásico, mercadillos como el de Algorta, todas las mañanas de los miércoles y sábados. Y un planazo, organizar un mercadillo de trueque entre amistades.*

***• Para comer:** Los restaurantes chinos tienen los menús más baratos. Si prefieres la comida árabe, el Berebar en la calle San Francisco ofrece un menú casero y completo por menos de 10 euros. Pero con el buen tiempo, ¿por qué no recuperar el pic-nic en el parque, en el que cada cual aporta un plato de casa? Para quien no quiera cocinar, las generosas ensaladas para llevar de la cadena de buffet libre Fresc Co sólo cuestan 3,50 euros.*

AMOREBIETA - ETXANO

LA FANFARE EN PETARD
Strasbourg-Francia

FANFARE DU BELGISTAN
Bruxelles-Bélgica

DESBUNDIXIE
Leiria-Portugal

LA BRASSA BAND
Madrid

TURUKUTUPÁ
Gasteiz

EXPRESS BRASS BAND
München-Alemania

FESTICULTORES TROUPE
Santiago de Compostela

D´IXIE ET D´AILLEURS
Baule-Francia

BRASTA
Utrecht-Holanda

Gonbidatua/Banda invitada
IRMAOS ESFEROVITE
Vila do Conde-Portugal

haizetara

EKAINA
JUNIO
19, 20, 21

FANFARREN, BANDEN ETA KALE MUSIKARIEN IV. NAZIOARTEKO LEHIAKETA
IV. CONCURSO INTERNACIONAL DE FANFARRIAS, BANDAS Y MÚSICA DE CALLE
IV. CONCOURS INTERNATIONAL DE FANFARRIAS, BANDES ET MUSIQUE DE RUE
IV. STREET BANDS, FANFARRE, AND STREET MUSIC INTERNATIONAL CONTEST

09

antolatzaileak

babesleak

laguntzaileak